


ANDESETAKO TERESA

Karmengo Ordenak baditu iru Teresa altaretan. Iru izar distiratsu. Bata Españakoa. Bestea frantziarra. Ta irugarrena Txilekoa. Avilako Teresa, Lisieuxko Teresa eta Andesetako Teresa.


Aurtengo martxoaren 21ean, Aita Santuak altaretara jaso izan dau txiletar moja gaztea. Emeretzi urte besterik ez eukazan eriotzako orduan. Berau dogu Txileko lenengo santua. Ta Txile guztiak pozarren ospatu dau jazoera zoragarri au.

Gizaldi onetako alaba dogu Andesetako Teresa. Karmengo Amaren jai bezperetan, 1900. uztailaren 13an, jaioko da Santiago uriburuan. Bere aita, Miguel Fernandez Jaraquemada eta ama, Luzia Solar Armstrong. Aitaren partetik errioxarra. Galilea erritxoan jaioa dogu santa gazte onen aitita. Zazpi nebarrebetatik, bostgarrena izango da Juanita, naizta gero Karmengo Ordenan Teresa izena artu. Famili onekoa. Egia esan, bere aitak ez dau izango suerte askorik negozioetan. Bai oster, Teresaren aitita azkarra izan zan bizimodua aurrera eroateko.

Mojen kolegioetan egingo ditu bere ikasketak. Lenengo Teresianetan. Ta gero amazpi urte bete arte, Jesusen Biotzaren mojetan jarraituko ditu bere ikasketak. Ikasteko ez dauko beste



18 illebeteko umetxo



munduko argirik. Karakter andikoa danez, ekiñaren ekiñez, aurrera daroaz ikasketak. Berari geien gustatzen jakona, musikea da. Pianoa joten ikasiko dau. Ta gainera abots ederra daukonez, jaialdietan protagonista izango da eleizkizunetan bai armonioa joten eta bai kantentan be. Ta katekista bezala zer esanik ez.

Gorputzez oso liraiña. Ederrea benetan. Oso altia, 1,76 m. Maite dau deporte. Igerian ez dauko parekorik kolejioan. Baiña zaldi gainean ibiltea izango da bere deporterik gustokoena. Oporretan orixe izango da bere jolasik atsegingarriena.

Amabost urtekin sortuko da bere biotz barnean moja izateko gogo bizia. Ama Sortzez Garbiaren egunean artuko dau karmeldar izateko erabaki sendoa. Ta amazortzi urtekin sartuko da Karmengo Ordenan. Maiatzaren 7an. Eta emeretzi urtekin, apirilaren 12an, tifus ondoezaz jota ilgo da Andesetako Teresa. Ogeiramabost urte geroago, egun berean, ilgo da bere ama be.

Teresaren arima

Andesetako Teresa ezagutzeko daukagun biderik egokiena, bere idaztiak ditugu. Batez be, bere egunerokoa. Amabost urtekin asiko da ixte egunero bere asmoak eta goraberak idazten kuaderno baten. Bost illebete il aurretik itziko dau egunero idazteari. Baita oso interesgarriak ditugu bere kartak be. Eun eta irurogeietalau karta daukaguz. Idazti oneek geure eskuetan daukagunez, itzelezko suertea dogu. Or ikusten da Teresaren arima. Beste orrenbeste gertatzen jaku Avilako Teresarekin eta Lisieuxko Teresarekin be. Karmengo Ordenan, zorionez, barneko asmoak eta pentsamentuak idazteko gogoia ez da iñoiz ere falta izan.

Karmengo ur garbietan

Andesetako Teresak, Karmengo Ordenako ur garbiak, amabost urtekin, asiko da dastatzen. Lisieuxko Teresaren bizitza irakurten dau. Ta liluratuta geratuko da. Ta bere erabakia karmeldar izatea. Ta berealaxe irakurriko ditu Avilako Teresaren idaztiak. Ama Teresaren bizitza goitik bera irakurriko dau. Baita



Ikas lagunekin



ELIZA

5
0 3'

9

11
12
13


10
11
12
13
14

15
16
17



Elizabet de la Triniteren idaztiak be irakurriko ditu. Ta zer esanik ez, Juan Kurutzekoaren idazti sakon eta paregabekoak. Karmeldar izateko ez da bearrezkoa konbentu baten bizitzea. Karmeldarren espiritua edonon bizi leike. Orixe da Andesetako Teresaren ezperientzi ederra. Bere kristau bokazioa Karmengo Ordenako santuen ildotik biziko dau.

Karmengo santuentzat kristau izatea, au da, Jesusi jarraitzea eta eleiztar izatea, bar-barneko esperientzia da. Ez da olako edo alako azalezko enpresa bat. Gizon-emakumeok gara Jaungoikuarentzat garrantzitsuenak. Gizon-emakumeok Jaungoikuarekiko alkarizketara deituak gara. Gogoko ditu Juan Kurutzekoaren pentsamentu eder bi oneek: «Arimaren barne-muinean, ezkutu eta isil, leunki eta maiteki Jaungoikua bizi da».



edo «Gizakiaren gogoeta bakar bat mundu osoa baino baliotsuagoa da, orregaitik Jainkoa da soilik aren duin».

Santa gazte onen bizitzan itzelezko garrantzia dauko kristau fedeko «santuen alkartasunaren» misterioak. Unibertso osoa, gizaki guztia, zerutar eta lurtarren alkartasuna barru-barrutik sentitzen dau. Maitasunez egindako ekintzak balio dabe bakarrik santuen alkartasunean. Oso sarritan agertzen dira bere idaztietan,

Lisieuxko Teresaren eta Juan Kurutzekoaren pentsamentu oneek: «Eleizaren biotzean maitasuna izango naz» edo «arratsean maitasunean aztertuko zaitue» edo «maitasun garbi pitin bat, Jainkoarentzat eta pertsonarentzat baliotsuago da eta Eleizarentzat onuragarriago, bestelako ekintza guztiak batera baino».

Egi biribil oneek bere bizitzan murgildurik dakarskuz gogora santa gazte onek. Gure arteko Eleiza itota dabil, noraezean, batzarretatik batzarretara, ebalueketatik ebalueketara. Azalezko enpresa bat dirudi. Andesetako Teresaren eta Karmengo santuen esperientziak sakonagoak eta zoragarriagoak ditugu kristau bokazinoa zintzo eta pozik bizitzeko. Gaurko Eleizea, Euskalerriko Eleizea beinik bein, mistikuen premiña gorrian aurkitzen da. «Oker larria litzake Jainkoaren ondasunak Jainkoa bera baino maiteago izatea». Ortik dabil Andesetako Teresaren mezua.

A. Olea